

# **ERROTULUAK EUSKERAZ IPINTZEKO DIRULAGUNTZAK** **ARAUTZEN DAUZAN ORDENANTZA**

## **HITZAURREA**

- Euskeraren normalizazioa helburu hartuta, Euskeraren Erabilera arautzen dauan 10/82 Legeak agintzen dauana betez, eta lege hori garatuz Eusko Jaurlaritzak zein Bermeoko Udalak harrezkero ontzat hartu dauzan dekretu, ordenantza eta planetan jaso dan legez, Udalean ez eze, udalerriko gizarte-sektore guztietan euskaraz normaltasun osoz bizi ahal izateko aukerak zabaltzeko ahaleginak bultzatu gura dauz Udalak, hain zuzen ere, euskeraz bizi gura daben bermeotarrei horretarako aukerak eskaintzeko behar diran hizkuntza-politikako neurriak erabakiz eta bultzatuz eta euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskeraren aldeko urratsak areagotuz.

- Ildo horretan, udalerrian dagozan idatzizko seinale zein errotuluak euskaraz idatzita egoteak hizkuntzaren normalizaziorako daukan garrantziaz oharturik, merkataritzak, ostalaritzak eta bestelako zerbitzu-sektoreko establezimenduetako idatzizko mezuak udalerriko hizkuntza paisajearen alde garrantzitsua osatzen dabe.

- Hori guztia kontuan izanda, sektore horri lagundu eta sektore horretan euskararen erabilera areagotu guran, besteak beste, errotuluak euskara egokian idatzita egon daitezcan laguntza sistema sustatu gura dau Bermeoko Udalak.

- Errotuluak euskaraz eta modu egokian idazteko baliabideak emote horretan, ordenantza honek jasoten dauanez, Udalak dirulaguntza sistema zutabe bitan oinarritu dau, establezimendu barria zabaltzera doanari errotulu barria euskeraz ipini daian erraztasunak emonez eta beste alde batetik, errotulua aldatu gura dauanari gaztelaniaz dagoalako edo euskaraz akatsen bat daukalako, dirulaguntza emonez.

- Dirulaguntzak ez eze, Udalak Euskera zerbitzua ipinten dau herritar guztien esku eta bereziki, merkatarari eta ostalarien esku, kartelak, publizitatea, iragarkiak, izen komertziala, ordutegia, merkealdiko kartelak, prezioak, etiketak, katalogoak eta menuak, etab., euskeraz idazten laguntzeko, nahiz gaztelaniatik euskerara itzuliz, nahiz euskerazko testua zuzenduz.

## **1. ARTIKULUA: XEDEA.**

Euskera Euskal Herriko hizkuntza nazionala dan ezkerro, Bermeoko Udallerri eta Udaleko hizkuntza da.

Eta hala izanik, Bermeoko merkataritza arloan hizkuntza paisajea euskalduntzeko helburuagaz Bermeoko Udalak dirulaguntzak emongo dauz.

## **2. ARTIKULUA: ONURADUNAK.**

Eskatzaileak, establezimendu guztietako titularrak izango dira. Hala ere, Finantza erakunde, hipermerkatu eta herriaz gaindiko establezimendu kateakaz, hitzarmen bidez arautuko da euskera normalizaziorako plana, errotuluen euskeratzea barne egongo dalarik.

## **3. ARTIKULUA: LAGUNTZA MOTA.**

Emongo diran dirulaguntzak mota bikoak izango dira:

a) Errotulu barria jartzeko: Kasu honetan, errotuloa jartzeagaitik Udalari ordaindu beharreko tributuen zenbatekoari adituz, kopuru horren %75eko dirulaguntza emongo da, 2. artikuluan ezarritakoaren kalte barik.

b) Gaztelaniaz edo euskera ez egokian idatzitako errotuluak aldatzeko: errotulo honeek aldatzeko, dirulaguntza eskuratu ahal izango da. Kasu honeetan, Bermeoko Udalak aldaketa kostuaren %75era arteko kopurua emon ahal izango dau, 200.000.- pezetatako mugagaz.

## **4. ARTIKULUA: KOPURU ZEHAZTU BAKOAK.**

Errotulua jartzeko eskaria independentea izan beharrea obra orokor baten barruan sartzen bada, 3.a) artikulua aplikatzeko errotulo honen aurrekontua obra proiektutik atarako da edo Udal Teknikariek kalkulatu dabe.

## **5. ARTIKULUA: UKANBEHARRAK.**

Dirulaguntza eskuratu ahal izateko, testua, euskera egokian idatzita egongo da. Horrela dala bermatu ahal izateko Udaleko Euskera Zerbitzua izango da egiaztapenaren arduraduna.

## **6. ARTIKULUA: AURREKONTUA.**

Ordenantza honetako 3.b) artikuluko dirulaguntzak bermatzeko, Euskera Zerbitzuak, diru-poltsa bat izango dau, urte bakoitzean errotuluak barritu edo aldatzeko dirulaguntza eskatzen dabenentzat.

Diru-poltsa horretan dagoana nahikoa ez bada eskari guztiei aurre egiteko, hurrengo urteko diru-poltsaren kontura esleituko da.

## **7. ARTIKULUA: ESKARIEN AURKEZPENA.**

Eskariak, Euskera Zerbitzura zuzenduko dira, bertan aztertuko baitira jasotako eskaera guztiak; Euskera Zerbitzuaren esku izango dalarik horreek onartu edo ukatzeko proposamena Gobernu Batzordeari bialtzeko ahalmena.

## **8. ARTIKULUA: ARAUDIAREN INTERPRETAZINOA.**

Araudi hau interpretatu ahal izateko, eta aurreikusita ez dagoen kasuetarako, Euskera Batzordeak edukiko dau eskaeraren ganeko irizpena emoteko ahalmena.

### **XEDAPEN IRAGANKORRAK:**

*Lehena:* Ordenantzaren 6. artikuluan aurrikusitako diru-poltsa, 2001. urterako, 500.000 pezetako izango da, hurrengo urteetako kopurua urtero zehaztuko dalarik.

*Bigarrena:* 2001. urtean aurkeztutako eskarien onartze edo ezeztatzea, urriaren 31n erabakiko da, data horretatik aurrera aurkeztutako eskariak, 2002. urtean erabakiko diralarik. Hurrengo urteetako erabakien datak urtero finkatuko dira.

**INDAR HARTZEA:** Araudi hau indarrean jarriko da bere testo osoa Bizkaiko Egunkari Ofizialean argitaratzen dan egunean eta indarrean jarraituko dau espreski aldatu edo derogatu arte.

Bermeon, 2001eko maiatzaren 31n.